



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

## PRENTSA-OHARRA

**Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) ARCAIN INGENIERIA y ARQUITECTURA, S.L. eta AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA, S.A. enpresei isunak ezarri dizkio**

**LEAk 89.000 eta 45.000 euroko isunak ezarri dizkio ARCAIN eta AROS enpresei, hurrenez hurren, Lehiaren Defentsari buruzko Legeak debekatutako jokabideengatik eta agindu du arau-haustetzat jotako jokabideen ondorioak (kalte-ordainak) mugiaraztea**

**Bilbo, 2013ko maiatzaren 21a.** Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak honako honen berri izan zuen, salaketa baten bidez: ARCAIN eta AROS enpresek informazioa trukatu zutela eta datuak isilpean gorde beharra urratu zutela, Pinosolo kiroldegiaren lehiaketari dagokionez, 2009an.

2011ko urriaren 17an, ARCAIN, AROS, VIUDA de SAINZ eta PUJOL enpresen aurkako zehapen-espedita irekitzea ebatzi zen, lehia murrizten zuten jokabideengatik, Pinosolo kiroldegiaren lehiaketari buruzko informazioa trukatzegatik, hain zuzen.

Geroago, Lehiaren Euskal Kontseiluak jokabide horiek interes publikoari eragin zioten lehia desleialeko jokabideak zirela iritzi zion.

2013ko maiatzaren 21eko ebazpenean, Lehiaren Euskal Kontseiluak frogatutzat hartu du lehiaren aurkako akordioa egon dela ARCAINen eta AROSen artean Pinosolo kiroldegiaren lehiaketari buruzko informazioa trukatzegatik.

Halaber, frogatutzat hartu da enpresa horiek datuak isilpean gorde beharra urratu zutela eta, beraz, interes publikoari eta lehiari eragin dieten lehia desleialeko jokabideak egin zituztela.



LEAren Kontseiluak ez du frogatuztat hartu PUJOL eta VIUDA de SAINZ enpresek parte hartu dutela jokabide horietan.

LEAren Kontseiluak ondorioztatu du jokabide horiek LDLren 1.1 eta 3. artikulua hautsi dituztela eta jokabide bakoitza arau-hauste larritzat jo behar dela, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 62.3. a) eta c) artikuluetan xedatutakoari jarraiki.

Honengatik guztiagatik, LEAren Kontseiluak honako isun hauek ezartzea ebatzi du:

- 89.000 € ARCAIN INGENIERIA y ARQUITECTURA, S.L. enpresari.
- 45.000 €. AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA, S.A. enpresari.

Era berean, LEAren Kontseiluak LEIOA KIROLAK. S.A.U. enpresari honako hau agintzea ebatzi du: ez ordaintzeko arau-hausleei inolako kalte-ordainik edo kalte-galerengatiko konpentsaziorik, Pinosolo kirolegiaren kontratua bertan behera uzteagatik. Ordainketaren bat egon bada, berreskuratu beharko du. Neurri horien helburua hau da: interes publikoaren kontrakoak izateagatik debekatutako jardunbideen ondorioak mugiaraztea.

LEAren Kontseiluak uste du ez dela bermatu lehiakideen tratuberdintasunaren printzipioa ezta kontratuko esleipenduna hautatzeko objektibotasunaren printzipioa ere, eta horrek lehia era larrian murriztu duela. Frogatuztat jotako jokabideek ezin diete onurarik ekarri gizarteari, merkatuari edo kontsumitzaileei. Euren helburu bakarra lehia murriztea da, enpresen mesederako, eta, ondorioz, era larrian eragiten diote interes publikoari. Honengatik guztiagatik, lehiaren ikuspegitik gaitzespenik handiena merezi dute.